

1. Oinarrizko kontzeptuak eta Programa sekuentzialak



1. Ondorengo **identifikadoreetatik**, esan ezazu zein identifikadore ez den onargarria Visual Basic-en eta zergatik:
 - a. long
 - b. deskontu portzentajea
 - c. osoa
 - d. urtea
 - e. 1zenbaki
 - f. zenb2_ink
 - g. kont lag
 - h. b&b
 - i. kont-2
2. Adieraz itzazu ondorengo aginduak Visual Basic lengoaia erabiliz:
 - a. Erazagutu cmdBider botoiaren gainean egindako 'klik'-ari esleitutako programaren goiburukoa
 - b. Erazagutu **prezioa** aldagaia bere mota *erreal*a izanik
 - c. **Prezioa**-ri 5 balioa esleitu
 - d. Erazagutu **zenb1** eta **zenb2** aldagaiak, beraien mota *osoa* izanik
 - e. Hasieratu **zenb1** aldagia 0 balioarekin
 - f. **Zenb2**-k **zenb1** gehi 1 balioa izan dezala
 - g. Inkrementatu **zenb1**-en balioa 2-z
 - h. Biderkatu **prezioa** 1,16-rekin BEZ-a gehitzeko
 - i. Irakurri prezioa-rentzako balioa
 - j. Irakurri zenb1 eta zenb2-rentzako balioak
 - k. Idatzi mezu bat prezioaren balioa **prezioa**-k duen balio dela esaten duena
3. Diseinatu eta idatzi programa bat Visual Basic-en, zeinek bi zenbaki oso eskatu eta irakurri ondoren, beraien batura kalkulatu eta emaitza pantailan erakusten duena.
4. Diseinatu eta idatzi programa bat Visual Basic-en, zeinek produktu baten prezioa eskatu eta irakurri ondoren, BEZ-aren %16 aplikatzen diona eta emaitza pantailan erakusten duena.
5. Diseinatu eta idatzi programa bat Visual Basic-en, zeinek produktu baten prezioa eta erositako unitate kopurua eskatu eta irakurri ondoren, BEZ-aren %16 aplikatu aurretik eta ondoren ordaindu beharreko totalak pantailaratzen dituena.
6. Diseinatu eta idatzi programa bat Visual Basic-en, zeinek diru kantitate bat pezetatan eskatu eta irakurri ondoren, pezeta kopuru hori zenbat euro diren pantailan erakusten duena. Oharra: 1 € = 166,386 pezeta dira.

1. Oinarrizko kontzeptuak eta Programa sekuentzialak



7. Diseinatu eta idatzi programa bat Visual Basic-en, zeinek zirkunferentzia baten erradioa eskatu eta irakurri ondoren, bere luzera zenbat den pantailan erakusten duena. Oharra: π -ren balioa 3,1415 da.
8. Diseinatu eta idatzi programa bat Visual Basic-en, zeinek zirkunferentzia baten erradioa eskatu eta irakurri ondoren, bere azalera zenbat den pantailan erakusten duena. Oharra: π -ren balioa 3,1415 da.
9. Diseinatu eta idatzi programa bat Visual Basic-en, zeinek pulgadatan neurtutako luzera bat milimetroetan zenbat den kalkulatu eta pantailaratzen duen, pulgada bat 2,54 zentimetro direla jakinik.